

79

GIZARTEA HOBETUZ
DOCUMENTOS DE BIENESTAR SOCIAL



EUSKADIKO 55 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONEN BIZI- BALDINTZEI BURUZKO AZTERLANA 2020

[EMAITZEN LABURPENA]

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

79

GIZARTEA HOBETUZ
DOCUMENTOS DE BIENESTAR SOCIAL



EUSKADIKO 55 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONEN BIZI- BALDINTZEI BURUZKO AZTERLANA 2020

[EMAITZEN LABURPENA]

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

1a, 2021eko martxoa

Ale-kopurua:

40 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

www.euskadi.eus

Egileak:

Elena del Barrio
Pura Díaz-Veiga
MATIA INSTITUTUA

Landa-lana:

Demométrica

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazio Zuzendaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Inprimaketa:

xxxxxx

L.G.:

xxxxx



EDUKIA

AURKEZPENA	8
Helburuak.....	10
Metodologia	10
EMAITZAK	12
Profil soziodemografikoa	13
Generoa.....	13
Egoera zibila	14
Hezkuntza-maila	15
Lan-egoera.....	17
Egoera ekonomikoa.....	19
Osasuna eta mendekotasuna	22
Osasun subjektiboa.....	22
Laguntzaren premia.....	24
Bizitzeko nahi den lekuaren inguruko lehentasuna.....	26
Gizarte-sarea	28
Bizikidetza motak.....	28

Etxebizitza eta ingurunea	31
Etxebizitzaren edukitza-erregimena.....	31
Ingurunearen irisgarritasuna.....	33
Jarduera	35
Biloben zaintza	35
Ariketa fisikoa	37
Boluntariotza	39
Interneten erabilera	42
Ongizate emozionala eta bakartasun-sentimendua	44
Ongizate subjektiboa	44
Gogobetetasuna.....	45
Bakartasun-sentimendua.....	47
Balioak.....	50
Politikarekiko interesa.....	50
Erljioa.....	52
Funtsezko mezuak.....	55



AURKEZPENA

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko inkesta espezifiko bat egiteak aukera emango dio Eusko Jaurlaritzari lurralde honetako adineko pertsonen errealitateari buruzko aurreko azterlanei jarraipena emateko. Aurreko azterlanak lagungarriak izan dira lurraldeko zahartze-prozesuaren berezitasunetara egokitutako planak, proposamenak eta estrategiak lantzeko. Azterlan horietako lehena 1993an egin zen (Adinekoen Inkesta), 1994ko Plan Gerontologikoa egiteko. Bigarren azterlana 2010ean egin zen (EAEko Adinekoen Bizi-baldintzei buruzko Inkesta), eta 2011ko “Zahartzen diren pertsonen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza Plan baterako oinarriak” dokumentuaren oinarria izen zen. Ezaugarri bereko azken azterlana 2014an egin zen, eta “Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia 2015-2020” abiarazteko oinarria izan zen.

2020an egindako azterlanainkestaren hirugarren edizioa da, eta pertsona horien errealitatea ezagutzea ez ezik, etorkizunerako joerak eta premiak aztertzea ere ahalbidetuko du. Ezagutza hori sortzea lagungarria izango da Euskadiko zahartzearen inguruko iraganeko eta etorkizuneko politika publikoak ebaluatzeko zein diseinatzeko.

Azterlan honen emaitza gaikako txostenen serie bat da. Txosten horietan, zehatz-mehatz aztertzen dira euskal lurraldeko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egungo egoera eta bilakaera, hainbat eremutatik abiatuta (gizarte-sarea, osasuna, zainketak, parte-hartzea eta abar). Serie horren lehen zenbakia **azterlanaren Emaitzen laburpena da. Bertan, gai horiei buruzko daturik azpimarragarrienetako batzuk biltzen dira.**

Txostenen seriea osatzen duten gaien zerrenda honako hau da:

- Zahartze aktiboaren indizea
- Zainketak
- Bakardadea
- Gizarte-sarea
- Etxebizitza, ingurunea eta lagunkoitasuna
- Jarduera eta parte-hartzea
- Covid-19ak eguneroko bizitzan duen inpaktua
- Osasun-egoera eta mendekotasun-maila
- Ongizatea eta gogobetetzea
- Erretiroa
- Pertzepzioak eta estereotipoak

[HELBURUAK]

Azterlan honen helburua da gizarte-politiken planifikatzaileei eta arduradunei Euskadin bizi diren 55 urteko eta gehiagoko biztanleen familia-bizitzaren, bizitza pertsonalaren eta ingurunearen baldintzei buruzko informazio zehatza eta unean unekoa ematea. Inkestaren bidez, halaber, informazioa bildu, Euskadiko adineko pertsonen errealitatea sistematizatu eta zabaldu, eta biztanle talde horrekin zerikusia duten askotariko alderdiak landu nahi dira.

Azterlanaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Adineko pertsonen eguneroko bizitzaren parte diren alderdi ugariaren argazki eguneratu bat eskaintzea (baldintza materialak, osasun-egoera, heziketa-maila, astialdia, parte-hartzea, gizarte-harremanak, ingurunea eta abar).
- Alderdi horiek 2010. urteaz geroztik izan dituzten joerak eta bilakaeraren konparazio-azterketa bat egitea.
- Euskadiko lurraldeen artean eta hiriburuen artean gai horien inguruan dauden aldeak ezagutzea.
- Biztanle talde horren premiak identifikatzea.

Hasiera batean planifikatutako helburu horiei beste bat gaineratu zitzaien, 2020. urteko krisi-egoeraren ondorioz:

- Covid-19aren krisiak Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen eguneroko bizitzan izan duen inpaktua ezagutzea.

[METODOLOGIA]

Ikerketa hau Euskadin familia-etxebizitzetan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko bi generoetako biztanleei egindako inkesta baten bidez egin zen azterlan kuantitatibo batean oinarritu zen.

Laginketa mota ausazkoa izan zen, eremu geografikoaren, adinaren eta sexuaren arabera estratifikatua. Euskadiko hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan emaitza adierazgarriak lortzeko, azken lagina 2.753 elkarrizketakoa izan zen, eta honela banatu ziren:

3. taula. Laginaren azken banaketa, habitataren eta lurraldearen arabera, hiriburuetan gutxienez 400 elkarrizketa esleitura

ESTRATUA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
5.000 baino gutxiago	47	124	66	237
5.001-20.000	35	267	300	602
20.001-50.000	0	306	142	448
50.000 baino gehiago	0	199	67	266
Hiriburuak	400	400	400	1200
Guztira	482	1296	975	2753

Informazioa biltzeko teknika telefono bidezko elkarrizketa izan zen, CATI sistema informatikoaren bidez egituratutako galdetegi batean oinarrituta. Landa-lana 2020ko uztailean, abuztuan eta irailean egin zen.

Beste urte batzuekin alderatzeko azterketa egiteko, honako inkesta hauetako datuak erabili dira:

URTEA	AZTERLANA	LAGINA
1993	Euskadiko Adinekoen Inkesta	Bizileku partikularretan bizi ziren 65 urteko eta gehiagoko 1.484 pertsona eta Euskal Autonomia Erkidegoan ospitaleratuta zeuden 102 pertsona
2010	Euskal Autonomia Erkidegoko 60 urtetik gorako bizi-baldintzei buruzko inkesta	Familia-etxebizitzetan bizi ziren 60 urteko eta gehiagoko 1.207 pertsona
2014	Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko inkesta	Familia-etxebizitzetan bizi ziren 55 urteko eta gehiagoko 2.469 pertsona



EMAITZAK

[PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA]

GENEROA

2020ko bizi-baldintzei buruzko azterlanean, EAeko etxeetan bizi diren 55 urtetik gorako 2.753 pertsonak hartu dute parte. Biztanleriaren lagin adierazgarri horretan, % 47,7 gizonak dira, eta % 55,3 emakumeak. Adinean aurrera egin ahala, emakumeen ehunekoa are handiagoa da.

Laginaren banaketa, adinaren eta sexuaren arabera

	Sexua		
	Gizonak	Emakumeak	p
55 baino gehiago, guztira	% 44,7	% 55,3	.
65 baino gehiago, guztira	% 42,3	% 57,7	.
Adin-tarteak			
55 - 64 urte	% 48,4	% 51,6	0,000
65 - 79 urte	% 45,8	% 54,2	
80 urte edo gehiago	% 35,1	% 64,9	

EGOERA ZIBILA

Biztanle talde honetan nagusi den egoera zibila ezkondua eta bikotekidearekin bizi dena da; zehazki, laginaren % 58,5 dago egoera horretan. Haren atzetik, alargunen taldea (% 21,8) eta ezkongabeena (% 13,3) kokatu dira. Azkenik, bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak % 6,2 izan dira.

Zifra horiek alde esanguratsuak agertzen dituzte generoaren eta adinaren arabera. Adibidez, emakumeen kasuan, alargunak % 31,2 dira, eta gizonen kasuan, berriz, % 10,2. Ezkondua dauden edo bikotekidearekin bizi direnen artean, berriz, gizonak nabarmentzen dira (% 71,4 gizonen kasuan eta % 48,1 emakumeen kasuan).

Adinari dagokionez, daturik esanguratsuen da alargunak % 54,9 direla 80 urteko eta gehiagoko taldean, eta % 6,3 55-64 urtekoen taldean. Gainerako egoeretan (ezkongabeak, ezkonduak edo bikotekidearekin bizi direnak, eta bananduta edo dibortziatuta daudenak), gazteenen taldea da nagusi.

Egoera zibila sexuarekin eta adinarekin gurutzatzean ikus daitekeenez, alarguntasuna emakumeen egoera da nagusiki, emakume alargunen zifra gizonena baino nabarmen

handiagoa baita adin-tarte guztietan. Hori, nolanahi ere, bizi-itxaropen handiagoaren eta senarren adinaren eta emazteenaren arteko aldearen ondorioa da (emakumeak urte gehiagoko bikotekideekin ezkondu ohi dira).

Beste datu azpimarragarri bat da adin aurreratuetan bananduta edo dibortziatuta dauden emakumeen ehunekoa hutsala dela (emakumeen % 1,0 eta gizonen % 3,9). Hala ere, badirudi talde gazteenetan aldaketa bat dagoela, egoera horretan dauden emakumeen ehunekoa % 10,6ra iristen baita 55-64 urtekoen taldean, eta gizonena, berriz, % 7,4ra.

Estado civil según edad y sexo


	Egoera zibila					
	Ezkonga-bea	Ezkondua / Bikotekidearekin	Banandua / Dibortziatua	Alarguna	Ed/Ee	p
55 baino gehiago, guztira	% 13,3	% 58,5	% 6,2	% 21,8	% 0,2	.
65 baino gehiago, guztira	% 9,5	% 54,4	% 4,4	% 31,6	% 0,1	.
Adin-tarteak						
55 - 64 urte	% 19,2	% 65,0	% 9,1	% 6,3	% 0,4	0,000
65 - 79 urte	% 10,2	% 63,7	% 5,5	% 20,4	% 0,2	
80 urte edo gehiago	% 8,0	% 35,1	% 2,0	% 54,9	% 0,0	
Sexua						
Gizonak	% 12,4	% 71,4	% 5,8	% 10,2	% 0,2	0,000
Emakumeak	% 14,0	% 48,1	% 6,5	% 31,2	% 0,2	
Sexua eta adina						
55-64 urteko gizonak	% 18,7	% 70,7	% 7,4	% 2,7	% 0,4	0,000
65-79 urteko gizonak	% 9,3	% 76,5	% 5,0	% 9,2	% 0,1	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 3,7	% 59,2	% 3,9	% 33,2	% 0,0	
55-64 urteko emakumeak	% 19,7	% 59,7	% 10,6	% 9,7	% 0,3	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 11,0	% 53,0	% 5,9	% 29,8	% 0,3	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 10,4	% 22,0	% 1,0	% 66,6	% 0,0	

Azken 10 urteetako konparazioan, aldaketa esanguratsu batzuk ikus daitezke 65 urteko eta gehiagoko biztanleen egoera zibilean¹. Ezkonduen, bikotekidearekin bizi direnen eta

¹ Konparazio-datuan, 65 urteko eta gehiagoko biztanleak erabili dira, 2010ean egindako azterlanaren lagina 60 urtetik gorako pertsonena baitzen.

alargunen zifrak behera egin du, eta ezkongabeena eta bananduta edo dibortziatuta daudenena, berriz, gora. Aldaketa horiek adinekoen bizi-estiloetan gertatutako aldaketa batzuk uzten dituzte agerian, baita osasunari lotutako beste ondorio batzuk ere. Alde batetik, alargunen zifraren beherakada gizonen bizi-itxaropenak azken urte hauetan izan duen gorakadaren eta, beraz, emazteekiko bizikidetza luzeagoaren ondorioa izan daiteke. Horrela, beraz, gizonen biziraupen handiagoa dela eta, adin aurreratuetako emakume gutxiago daude alargun. Bestalde, ezkontzaz edo bikoteaz kanpoko egoerak (hala nola ezkongabetasuna edo banantzea/dibortzioa) gora egin izanak familia-balio tradizionaletatik urrunago eta indibidualismotik eta denboran hain egonkorrak ez diren harremanetatik hurbilago dauden bizi-estilo batzuetarako nolabaiteko joera erakusten du. Joera hori, bestalde, bakarrik bizi diren pertsonen kopuruaren gorakadarekin lotuta dago.

65 urteko eta gehiagoko biztanleen egoera zibilaren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020



HEZKUNTZA-MAILA

Heziketa-maila herrialde baten eta biztanle talde baten garapen- eta heldutasun-mailaren adierazlerik erabakigarrienetako bat da. Horri dagokionez, azpimarragarriena da 55 urteko eta gehiagoko biztanleen % 60,8k bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak egin dituela eta lehen mailako ikasketak ere ez dituztenak % 14,6 baino ez direla.

Generoa eta adina ere hezkuntza-mailari lotuta daudela dirudi. Izan ere, ikasketarik ez duten emakumeak % 19,7 dira, eta ikasketarik ez duten gizonak, berriz, % 8,2. Datu horiek bat datoz genero-rol tradizionalekin. Horiei jarraikiz, emakumeak etxeke eta ugalketara bideratutako eremu pribatu batean kokatu dira, eta eremu horrek prestakuntza arautua jasotzeko aukera gutxi eskaini dizkie adinik handieneko emakumeei.

Adinik handieneko pertsonak ere nabarmendu egiten dira ehuneko horretan. Izan ere, laurogei urtetik gorako pertsonen % 36,6k ez dute ikasketarik, eta 55-64 urteko pertsonen kasuan, berriz, % 2,7 dira ikasketarik ez dutenak. Baina, dirudienez, gazteenen belaunaldietan nabarmen murrizten dira hezkuntza-mailako aldeak gizonen eta emakumeen artean. Beraz, adinekoen taldean hezkuntza-mailan dauden aldeak orekatu egingo dira etorkizunean.


Hezkuntza-maila, adinaren eta sexuaren arabera

	Hezkuntza-maila			
	Lehen mailakoak baino ikasketa txikiagoak	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 14,6	% 24,7	% 60,8	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 22,1	% 29,2	% 48,8	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 2,7	% 17,6	% 79,7	0,000
65-79 urte	% 15,2	% 28,3	% 56,5	
80 urte edo gehiago	% 36,6	% 31,0	% 32,4	
Sexua				
Gizonak	% 8,2	% 20,5	% 71,2	0,000
Emakumeak	% 19,7	% 28,0	% 52,3	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 2,5	% 15,4	% 82,0	0,000
65-79 urteko gizonak	% 8,3	% 22,7	% 69,0	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 23,5	% 28,6	% 48,0	
55-64 urteko emakumeak	% 2,9	% 19,6	% 77,4	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 21,1	% 33,0	% 45,9	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 43,6	% 32,3	% 24,0	

Azken 10 urteetako bilakaeran, argi eta garbi ikusten da adinekoen artean hezkuntza-mailak duen goranzko joera. 2010. urtean, unibertsitate-ikasketak eginak zituzten pertsonen

ehunekoa % 4,6 zen, eta 2020an, berriz, zifra hori % 24,6ra igo da. Beraz, ikasketa-mailarik handiena lortu duten pertsonen kopurua bost aldiz handiagoa da 2020an. Horrek esan nahi du ikasketarik ez duten edota irakurtzen edo idazten ez dakiten biztanleen datuak gero eta txikiagoak direla. Zehazki, analfabetismo-egoeran dauden pertsonak % 0,4 dira 2020an, eta % 2,5 ziren 2010ean.

65 urteko eta gehiagoko biztanleen heziketa-mailaren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020



LAN-EGOERA

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanle guztien % 64,1 erretiro-egoeran daude edota pentsio bat jasotzen ari dira, % 22,6k lan egiten dute, % 7,7k etxeko jarduerak egiten dituzte eta % 3,8 langabeak dira. Hortaz, biztanleen zatirik handiena erretirodunetz osatuta dago, eta 10 pertsonatik 2k lanean jarraitzen dute. Azpimarratu beharreko datu bat da % 3,8 langabeak direla, kontuan hartuta adin horietan langabea izatea arazoa izan daitekeela, zaila baita adin horietan lan-merkatuan berriz txertatzea.


Adin-taldeen artean eta genero-taldeen artean, aldeak ikus daitezke, halaber, lan-egoerari dagokionez. Alde batetik, belaunaldi gazteenetako pertsona gehienek lan egiten dute edo

langabeak dira, eta adin-tarte guztietako emakume gehienek etxeko jarduerak egiten dituzte, genero-rol tradizionaleri jarraikiz.

Lan-egoera, adinaren eta sexuaren arabera

	Lan-egoera						
	Lan egiten du	Erretiroduna edo pentsioduna	Langabea	Etxeko jarduerak	Beste bat	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 22,6	% 64,1	% 3,8	% 7,7	% 1,4	% 0,5	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 2,7	% 85,9	% 0,5	% 9,0	% 1,3	% 0,6	.
Adin-tarteak							
55-64 urte	% 54,3	% 29,4	% 8,9	% 5,6	% 1,4	% 0,4	0,000
65-79 urte	% 3,4	% 87,5	% 0,6	% 7,0	% 0,9	% 0,6	
80 urte edo gehiago	% 1,2	% 82,8	% 0,5	% 13,0	% 2,1	% 0,5	
Sexua							
Gizonak	% 24,5	% 69,9	% 4,5	% 0,1	% 0,6	% 0,4	0,000
Emakumeak	% 21,1	% 59,4	% 3,2	% 13,8	% 2,0	% 0,6	
Sexua eta adina							
55-64 urteko gizonak	% 54,5	% 32,9	% 10,5	% 0,1	% 1,4	% 0,6	0,000
65-79 urteko gizonak	% 4,1	% 95,4	% 0,2	% 0,0	% 0,0	% 0,4	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 0,0	% 99,5	% 0,5	% 0,0	% 0,0	% 0,0	
55-64 urteko emakumeak	% 54,1	% 26,1	% 7,4	% 10,7	% 1,5	% 0,2	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 2,8	% 80,8	% 0,9	% 12,9	% 1,7	% 0,9	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 1,8	% 73,7	% 0,5	% 20,0	% 3,2	% 0,7	

Azken 10 urteetako bilakaeraren azterketan ikus daitekeenez, joerarik nabarmenenak etxeko jarduerak egiten dituzten pertsonen kopuruaren beherakada eta erretirodunak eta/edo pentsiodunak diren eta lan egiten duten pertsonen (hau da, lan-merkatuarekin lotura duten pertsonen) kopuruaren gorakada dira. Datu hori emakumeak lan-merkatuan txertatzearekin lotuta dagoela dirudi, eta emakumeek lan-merkatuan duten presentziaren handiagotzea adierazten du. Hortaz, etorkizunerako joerak erakusten duenez, emakumeek etxeko jardueretan duten parte-hartze eksklusiboa desagertu egingo da edo atzera egingo du pixkanaka, eta horrek esan nahi du erretiro-pentsioen maila handiagoa eta erosteko ahalmen handiagoa lortu ahal izango dutela.

65 urteko eta gehiagoko biztanleen lan-egoeraren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020

EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoari dagokionez, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 40,9k hileko 1.800 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte etxean. Haien atzetik, % 25,9 901-1.800 euroko tartean daude, % 6,7 601-901 euroko tartean, eta % 2,1ek hileko 600 eurotik beherako diru-sarrerak jasotzen dituzte. Azkenik, % 0,3k ez dute diru-sarrerarik. Kontuan hartu behar da, nolana ere, galdera honi ez dakitela erantzun diotenen edo erantzun ez dutenen zifra handia: % 24,0. Dena dela, hiru pertsonatik batek galdera horri erantzun ez badio ere, datuek erakusten dute biztanle talde horrek erosteko ahalmen handia duela, ehunekorik handiena tarterik altuenean agertzen baita.

Egoera ekonomikoa adinarekin eta generoarekin ere lotuta dago. Izan ere, adinik handieneko pertsonen eta emakumeen etxeko diru-sarrerak txikiagoak dira. Adibidez, laurogei urtetik gorako pertsonen artean, 1.800 euro baino gehiago jasotzen dituztenak % 14,7 dira, eta 55-64 urteko pertsonen artean, berriz, % 54,9. Kontuan hartu behar da batez besteko erretiro-pentsioa 1.400 euro inguru dela Euskadin 2020. urtean. Hilean 1.800 euro baino

gehiago jasotzen dituzten emakumeak % 32,3 dira, eta gizonak, berriz, % 51,5. Sexua eta adina gurutzatzean ikus daitekeenez, berriz, genero-desberdintasunik handienak adinik handienetan agertzen dira. Adinik txikieneko taldeetan, ia ez dago desberdintasunik, oro har gizonak diru-sarrera handiagoak badituzte ere.


Adierazle hori lan-egoeraren aurreko adierazlearekin lotzen badugu, adinik handieneko emakume batzuek alarguntasun-pentsioa kobratzen dutela ikusiko dugu, ez baitira egon lan-merkatuari lotuta. Hori dela eta, haien hileko diru-sarrerak gizonenak baino txikiagoak dira. Euskadin, batez besteko alarguntasun-pentsioa hileko 800 eurotik gorakoa da, hau da, erretiro-pentsio baten erdia baino zertxobait gehiago. .

Egoera ekonomikoa, adinaren eta sexuaren arabera

	Egoera ekonomikoa						
	600 euro baino gutxiago	601-900	901-1.800	1.800 baino gehiago	Diru-sarrerarik gabe	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 2,1	% 6,7	% 25,9	% 40,9	% 0,3	% 24,0	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 2,4	% 8,8	% 27,6	% 32,0	% 0,1	% 29,0	.
Adin-tarteak							
55-64 urte	% 1,7	% 3,4	% 23,3	% 54,9	% 0,6	% 16,1	0,000
65-79 urte	% 1,3	% 7,2	% 26,0	% 40,3	% 0,0	% 25,2	
80 urte edo gehiago	% 4,8	% 12,4	% 30,8	% 14,7	% 0,4	% 37,0	
Sexua							
Gizonak	% 1,2	% 3,4	% 23,6	% 51,5	% 0,3	% 19,9	0,000
Emakumeak	% 2,9	% 9,4	% 27,8	% 32,2	% 0,3	% 27,4	
Sexua eta adina							
55-64 urteko gizonak	% 2,1	% 2,5	% 21,9	% 58,7	% 0,7	% 14,0	0,000
65-79 urteko gizonak	% 0,6	% 3,2	% 22,2	% 53,3	% 0,0	% 20,7	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 0,5	% 6,5	% 31,8	% 27,6	% 0,0	% 33,5	
55-64 urteko emakumeak	% 1,4	% 4,2	% 24,5	% 51,4	% 0,4	% 18,2	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 1,8	% 10,5	% 29,3	% 29,4	% 0,0	% 29,0	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 7,0	% 15,5	% 30,2	% 7,8	% 0,6	% 38,9	

65 urteko eta gehiagoko biztanleen egoera ekonomikoaren bilakaeran, erosteko ahalmenak gora egin duela ikus daiteke. Izan ere, 2010. urtean, hilean 600 euro baino gutxiago jasotzen zituzten pertsonak % 18,2 ziren, eta 10 urte geroago, berriz, % 2,5 baino ez. Hilean 1.800 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonak, bestalde, % 2,8 ziren 2010ean, eta % 32,0 2020an. Euskadin, hileko batez besteko erretiro-pentsioa 1.108 eurokoa zen 2010ean, eta alargun-pentsioa, berriz, hileko 667 eurokoa (Iturria: Gizarte Segurantza. 2010eko azaroa).

65 urteko eta gehiagoko biztanleen egoera ekonomikoaren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020



[OSASUNA ETA MENDEKOTASUNA]

OSASUN SUBJEKTIBOA

Euskadin, 55 urtetik gorako pertsona gehienek beren osasun-egoera oso ona edo ona dela adierazi dute (% 74,2k). Beste % 18,8k hala-holakoa dela adierazi dute, eta % 10ek baino gutxiagok txarra edo oso txarra dela (% 6,9k).

Osasun-krisiak osasun-egoeraren pertzepzioan izan duen inpaktuak zuzeneko eragina izan duela dirudi. Izan ere, pertsonen % 14,8k adierazi dute krisiak beren pertzepzioa okerrera aldatu duela. Dena dela, gehienek (% 83,5ek) onartu dute krisiak ez duela aldaketarik ekarri zentzu horretan.

Beste adierazle batzuekin gertatzen den bezala, alderantzizko erlazio bat dago osasun subjektiboaren eta adinaren artean. Adinean gora egin ahala, osasun-egoera era negatiboagoan hautematen da. Beren osasun-egoera txarra edo oso txarra dela adierazi duten 55-64 urteko pertsonak ez dira % 6ra iristen, eta 80 urtetik gorakoen kasuan, berriz, zifra hori ia bikoitza da (% 10,1). Edonola ere, ezein kasutan ez dago ehuneko handirik egoera horietan.

Emakumeekin antzekoa gertatzen da, eta gizonek baino osasun-egoera subjektibo okerragoa dute. Osasun-egoera txarra dutela adierazi duten gizonak % 5,9 dira, eta emakumeak, berriz, % 7,6.

Sexua eta adina gurutzatzean ikus daitekeenez, adina gizonek zein emakumeek hautemandako osasun-egoeraren adierazle garbia bada ere, emakumeen kasuan egiten du gora osasun-egoera txarrean edo oso txarrean daudela adierazi duten laurogei urtetik gorakoen ehunekoak. Osasun-egoera txarra duten adinik handieneko emakumeen ehunekoa gizonen ehunekoaren bikoitza da ia.

Osasun-egoera, adinaren eta sexuaren arabera

	Osasun-egoera							
	Oso ona	Ona	Hala-holako (Ez irakurri)	Txarra	Oso txarra	ED	EE	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 15,5	% 58,7	% 18,8	% 5,6	% 1,2	% 0,0	% 0,1	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 14,2	% 55,9	% 22,1	% 6,1	% 1,5	% 0,1	% 0,1	.
Adin-tarteak								
55-64 urte	% 17,6	% 63,2	% 13,6	% 4,9	% 0,8	% 0,0	% 0,0	0,000
65-79 urte	% 15,5	% 59,9	% 18,1	% 5,6	% 0,9	% 0,0	% 0,1	
80 urte edo gehiago	% 11,6	% 47,7	% 30,3	% 7,2	% 2,9	% 0,3	% 0,0	
Sexua								
Gizonak	% 16,3	% 61,1	% 16,8	% 4,9	% 1,0	% 0,0	% 0,0	0,030
Emakumeak	% 14,9	% 56,9	% 20,4	% 6,2	% 1,4	% 0,1	% 0,1	
Sexua eta adina								
55-64 urteko gizonak	% 17,0	% 64,3	% 12,5	% 5,4	% 0,9	% 0,0	% 0,0	0,000
65-79 urteko gizonak	% 16,5	% 62,2	% 16,0	% 4,8	% 0,4	% 0,0	% 0,0	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 13,6	% 49,3	% 30,2	% 3,9	% 3,0	% 0,0	% 0,0	
55-64 urteko emakumeak	% 18,1	% 62,2	% 14,6	% 4,4	% 0,7	% 0,0	% 0,0	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 14,5	% 57,9	% 19,8	% 6,2	% 1,2	% 0,0	% 0,3	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 10,6	% 46,8	% 30,4	% 9,0	% 2,8	% 0,4	% 0,0	


Adinekoen osasun-egoerak azken 10 urteetan izan duen bilakaeran, osasun-egoera ona dutela adierazi duten biztanleen kopuruaren goranzko joera bat ikus daiteke, 2010ekoa baino % 20 handiagoa baita. Nagusiki, hala-holako osasun-egoera duten biztanleen ehunekoaren beherakada handia eta osasun-egoera txarra edo oso txarra dutela adierazi dutenen kopuruaren beheranzko joera nabarmentzen dira.

Interesgarria da emaitza horien bilakaera azpimarratzea, kontuan hartuta inkesta 2020ko udan egin zela, hau da, Covid-19aren krisia bete-betean zegoela eta 3 hilabeteko alarma-egoeraren ondoren. Ildo horretan, adinekoen % 15,9k krisiaren ondorioz osasun-egoera okerragoa

hautematen dutela adierazi badute ere, osasun-egoera onean dauden biztanleen ehunekoak nabarmen egin du gora duela 10 urteko ehunekoarekin alderatuta.

Osasun-egoera onaren pertzepzioaren gorakada gaixotasun askoren ondorioz larrienen kontrol handiagoak osasun-egoeran eragin duen hobekuntza objektiboaren ondorioa izan daiteke. Kontrol handiago horrek, halaber, osasun-egoera oneko bizi-itzaropena handiagoa izatea ekarri du.

65 urteko eta gehiagoko biztanleen osasun-egoeraren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020



LAGUNTZAREN PREMIA


Laguntzaren premia edo mendekotasun-egoera kalkulatzeko, eguneroko bizitzako jarduera jakin batzuk (EBJ) egiteko garaian dagoen laguntzaren premia neurtzen duen eskala bat erabiltzen da. Erabilitako eskala hamabi itenez osatuta dago. Item horien barruan, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak (EBOJ) (jatea, garbitzea, janzteia eta abar) eta instrumentalak (EBJI) (erosketak egitea, telefonoa erabiltzea, sendagaiak gogoratzea eta abar) bereizten dira. Pertsona batek jarduera hori egin ezin duenean edo egiteko laguntza behar duenean esaten da pertsona batek laguntza behar duela. Jarduera bat edo batzuk (oinarrizkoak zein instrumentalak) egiteko laguntza behar duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoa % 15,1 da.

Adierazle hori, osasun-egoera bezala, adinari eta generoari lotuta dago. Izan ere, adinik handieneko pertsonen eta emakumeek proportzio handiagoan behar dute laguntza. Laurogei urtetik gorako pertsonen kasuan, ehunekoak % 43,3ra iristen da. Hau da, 80 urteko eta gehiagoko pertsonen ia erdiek behar dute laguntza eguneroko bizitzako jarduera bat edo gehiago egiteko. Emakumeen kasuan, % 18,4k adierazi dute laguntza behar dutela eguneroko jarduera horiek egiteko, eta gizonen kasuan, berriz, % 11k.

Generoa eta adina batera aztertzean ikus daitekeenez, bi aldagaiak oso lotuta daude laguntzaren premiarekin. Laguntza gehien behar dutenak adinik handieneko pertsonak dira, gizonen zein emakumeen kasuan. Dena dela, generoari erreparatuta ikus daitekeenez, adinean gora egin ahala mendekotasun-egoeran dauden emakumeen ehunekoak nabarmen egiten du gora gizonen ehunekoarekin alderatuta. Laurogei urtetik gorako biztanleen kasuan, gizonen % 33,9k eta emakumeen % 48,4k behar dute laguntza. Adinik txikieneko taldean, berriz, ez dago alde esanguratsurik gizonen zifraren eta emakumeenaren artean. Horrek erakusten du adin horietan gizonen heriotza-tasa handiagoa eta bizi-itxaropena txikiagoa izanik ere, adinik handienetara iristen direnean osasun-egoera hobean iristen direla. Emakumeak, berriz, urte gehiago bizi dira, baina eguneroko bizitzan autonomiaz moldatzea eragozten dieten arazoak pairatzen dituzte.

EBJetarako laguntzaren premia, adinaren eta sexuaren arabera

	EBJetarako laguntza			
	Behar du	Ez du behar	Inoiz ez+Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 15,1	% 84,8	% 0,1	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 21,0	% 79,0	% 0,0	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 5,7	% 94,2	% 0,1	0,000
65-79 urte	% 10,3	% 89,7	% 0,1	
80 urte edo gehiago	% 43,3	% 56,7	% 0,0	
Sexua				
Gizonak	% 11,0	% 88,9	% 0,1	0,000
Emakumeak	% 18,4	% 81,5	% 0,1	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 5,7	% 94,3	% 0,0	0,000
65-79 urteko gizonak	% 7,9	% 92,0	% 0,2	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 33,9	% 66,1	% 0,0	
55-64 urteko emakumeak	% 5,8	% 94,0	% 0,2	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 12,3	% 87,7	% 0,0	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 48,4	% 51,6	% 0,0	

EBJetarako laguntza behar duten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, 2010, 2014* eta 2020

(*) 2014. urtean, laguntzaren premia neurtzeko erabilitako eskalak 14 item zituen, eta, beraz, aurtengo datuen konparagarritasuna kontu handiarekin hartu behar da.

BIZITZEKO NAHI DEN LEKUAREN INGURUKO LEHENTASUNA


Inkestaren datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko biztanleen % 75ek baino gehiagok nahiago dute beren etxean jarraitu, baita eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutenean ere. Bestalde, % 12,6k bere bizilekua ez den leku batera joatea erabaki dute. Eraitza hori da zainketen arloko egungo ikuspegiaren oinarria. Ikuspegi horietan, adinekoek etxean jarraitzeari ematen zaio lehentasuna, eta pertsonak bere etxebizitzan ahalik eta denbora gehien jarraitzeko beharrezkoak diren baliabideak bideratzen dira.

Dirudienez, generoa eta adina ez daude aldagai honi lotuta. Beren bizilekuan bizitzen jarraitu nahi duten gizonen eta emakumeen ehunekoak oso antzekoak dira. Generoaren kasuan, badirudi gizon gehiago bizi direla beren bizilekutik kanpo, baina esanguratsutasun estatistikoaren maila txikia da, eta sexua eta adina gurutzatzean, desagertu egiten da esanguratsutasun mota oro.

Mendekotasun-egoeraren kasuan non bizi nahiko lukeen, generoaren eta adinaren arabera

	Mendekotasun-egoeraren kasuan non bizi nahiko lukeen			
	Bere etxean	Bere etxetik kanpo	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 75,3	% 12,6	% 12,0	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 75,0	% 12,3	% 12,6	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 75,9	% 13,0	% 11,1	0,570
65-79 urte	% 75,3	% 13,0	% 11,6	
80 urte edo gehiago	% 74,4	% 10,9	% 14,7	
Sexua				
Gizonak	% 75,2	% 14,2	% 10,6	0,042
Emakumeak	% 75,5	% 11,3	% 13,2	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 76,3	% 14,8	% 8,9	0,090
65-79 urteko gizonak	% 73,6	% 15,6	% 10,8	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 76,6	% 9,0	% 14,4	
55-64 urteko emakumeak	% 75,4	% 11,3	% 13,2	0,755
65-79 urteko emakumeak	% 76,8	% 10,9	% 12,3	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 73,2	% 11,9	% 14,9	

Adierazle horrek 65 urteko eta gehiagoko biztanleengan izan duen bilakaeran ikus daitekeenez, 2014. urtean lortu zen beren bizilekuan bizitzen jarraitu nahi zuten biztanleen ehunekorik handiena (% 85,1), eta 2010eko ehunekoa baino 20 puntu handiagoa izan zen. Dena dela, bizilekuan jarraitzeko lehentasunak goranzko joera izango zuela aurreikus bazitekeen ere, 2020ko datuek erakusten dute zifra horrek behera egin duela. Hortaz, bizilekuan jarraitzeak pertsona gehienek lehentasuna izaten jarraitzen badu ere, badirudi gora egin duela beste aukera batzuk nahiago dituztenen kopuruak. Ildo horretan, kontuan hartu behar da azken urte hauetan ugaritu egin direla adinekoentzako bizitoki alternatibo mota ugari, eta oso harrera ona izan dutela. Hortaz, bizitoki-zerbitzuen eskaintza handiago hori izan daiteke, egoitza tradizionalan pertsonengan oinarritutako arreta-ereduak aurrera egin izanarekin batera, joera-aldaketa horren arrazoia.

65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, laguntza behar izanez gero non bizi nahiko luketen kontuan hartuta, 2010, 2014 eta 2020**[GIZARTE-SAREA]****BIZIKIDETZA MOTAK**

Familia-etxearen ibilbiderik ohikoenean, zahartzaroaren hasieran gurasoen eta seme-alaben arteko bizikidetza-egitura da nagusi, hots, gurasoen etxean bizi diren belaunaldi anitzeko etxeak (emantzipatu gabeko seme-alabak dituzten bikoteak). Euskadin, egoera horretan dauden 55 urteko eta gehiagoko pertsonak % 31,5 dira, batez ere gazteenen taldekoak (55-64 urteko pertsonen % 46,6 bizi dira familia mota horretan). Geroago, seme-alabak etxetik emantzipatzen direnean, etxea habia huts bihurtzen da. Horrek, normalean, bikotekidearekin bizitzea dakar, eta horixe da Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 37,5en ohiko bizikidetza mota. Nolanahi ere, egoera horretan dauden 65-79 urteko pertsonena da ehunekorik handiena (% 47,6). Geroago, ibilbiderik ohikoenean, ezkontideetako bat hil egiten da, eta bakarrik bizitzeko etapa iristen da. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, % 25,6 bizi dira bakarrik. Pertsona bakarreko etxe mota hori

80 urtetik gorako pertsonen taldean nabarmentzen da (% 41,6). Seme edo alaba batekin haren etxean bizitzeko aukera (seme edo alabaren etxean bizi diren belaunaldi anitzeko etxeak) gero eta ezohikoagoa da (% 1,6), eta adinik aurreratuenetan da nagusi (ehunekoa % 2,0ra iristen da 80 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan).

Horrela, beraz, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen etxeen egungo errealitatearen argazkiak erakusten duenez, % 37,5 (ehunekorik handiena) bikotekidearekin bizi dira beren etxean (habia hutsa), % 31,5 belaunaldi anitzeko familietan bizi dira beren etxean, hau da, nagusiki gurasoez eta seme-alabez osatuta dauden eta sostengatzaile nagusi gisa adinekoa duten familietan (emantzipatu gabeko seme-alabak dituzten gurasoak), % 25,6 bakarrik bizi dira pertsona bakarreko etxe batean, % 3,6 beste mota bateko etxeetan bizi dira (beste senide batzuekin bizitzeko aukera barnean hartuta), eta, azkenik, % 1,6 seme edo alaba batekin bizi dira haren etxean (seme edo alabaren etxera bizitzera joan diren adineko pertsonak).

65 urteko eta gehiagoko biztanleak kontuan hartuta, zifrak honako hauek dira: % 42,1 bikotekidearekin bizi dira, % 31,1 bakarrik, % 21,9 beren etxean bizi dira seme-alabekin, % 3,2 beste mota bateko etxeetan bizi dira, eta % 1,4 seme edo alaba baten etxean bizi dira.

Arestian adierazi dugunez, adina funtsezko faktorea da etxeen egituraren aldaketan. Izan ere, 55-64 urteko pertsonak nagusiki belaunaldi anitzeko familietan bizi dira beren etxean, 65-79 urteko pertsonak, berriz, bikotekidearekin bizi dira nagusiki, eta, azkenik, 80 urteko eta gehiagoko pertsona gehienak bakarrik bizi dira.

Generoari dagokionez, pertsona bakarreko etxeetan bizi diren pertsonen artean emakumeen ehunekoa nabarmentzen da (emakumeen % 31,9 eta gizonen % 17,8), eta bikotekidearekin bizi diren pertsonen artean, berriz, gizonena (gizonen % 43,6 eta emakumeen % 32,5). Arrazoiaren artean, egoera zibilari, emakumeen bizi-itzaropen handiagoari eta bikotekideen adinaren arteko aldeari dagokienez arestian adierazi ditugunak daude. Emakumeak urte gehiago bizi dira, bizi-itzaropen handiagoa dute eta adin handiagoko gizonekin ezkondu ohi dira. Hori dela eta, aukera handiagoak dituzte adin aurreratuetan alargun eta bakarrik bizitzeko.

Sexua eta adina gurutzatzean ikus daitekeenez, bakarrik bizi diren pertsonen artean emakumeak gehiago dira adin-tarte guztietan. Interesgarria da ikustea, halaber, adinik aurreratuenen taldean belaunaldi anitzeko etxeetan bizi diren emakumeen ehunekoa nabarmen handiagoa dela. Laurogei urteko edo gehiagoko gizon gehienak, berriz, bikotekidearekin bizi dira (% 52,2). Hau da, adin aurreratuetako gizonak neurri handiagotan bizi dira emazteekin. Emakumeen kasuan, berriz, senarra galdu izanaren aukera kontuan hartuta, bakarrik bizi dira (% 48,8), edota seme-alabekin (% 22,2 beren etxean eta % 2,6 seme edo alaba baten etxean).


Etxe mota

	Etxe mota						
	Pertsona bakar- koa	Bikotekidearekin	Bel. anitzekoa bere etxean	Bel. anitzekoa seme edo alaba- ren etxean	Beste mota batekoa	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 25,6	% 37,5	% 31,5	% 1,6	% 3,6	% 0,4	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 31,1	% 42,1	% 21,9	% 1,4	% 3,2	% 0,2	.
Adin-tarteak							
55-64 urte	% 16,8	% 30,1	% 46,6	% 1,9	% 4,1	% 0,6	0,000
65-79 urte	% 26,1	% 47,6	% 23,5	% 1,1	% 1,6	% 0,1	
80 urte edo gehiago	% 41,6	% 30,6	% 18,7	% 2,0	% 6,6	% 0,5	
Sexua							
Gizonak	% 17,8	% 43,6	% 33,8	% 1,2	% 3,1	% 0,4	0,000
Emakumeak	% 31,9	% 32,5	% 29,5	% 1,9	% 3,9	% 0,3	
Sexua eta adina							
55-64 urteko gizonak	% 14,7	% 30,1	% 48,6	% 2,0	% 3,9	% 0,8	0,000
65-79 urteko gizonak	% 17,1	% 53,8	% 27,3	% 0,5	% 1,3	% 0,0	
80 urte eta gehiagoko gi- zizonak	% 28,4	% 52,2	% 12,2	% 1,0	% 5,6	% 0,7	
55-64 urteko emakumeak	% 18,8	% 30,1	% 44,7	% 1,7	% 4,2	% 0,4	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 33,7	% 42,4	% 20,3	% 1,6	% 1,9	% 0,1	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 48,8	% 19,0	% 22,2	% 2,6	% 7,1	% 0,4	

Adineko pertsonen etxeen osaerak azken ia 30 urteetan izan duen bilakaerari erreparatuta, joera nagusi batzuk ikus daitezke. Alde batetik, bakarrik bizi direnen ehunekoak gora egin du (% 16,5 1993an eta % 31,1 2020an), baita bikotekidearekin bizi direnen ehunekoak ere (% 31,6 1993an eta % 42,1 2020an). Bestetik, seme edo alaba batekin haren etxean bizi direnen ehunekoak behera egin du (% 15,2 1993an eta % 1,4 2020an). Lehen, adin aurreratueta zeuden eta bikotekidea galdu zuten pertsonen artean maizago gertatzen zen familiaren berrelkartzea; normalean, amak seme edo alaba baten etxera joaten ziren alargun geratu ondoren. Gaur egun, aldiz, norberaren etxean jarraitzeko eta bakarrik bizitzen gozatzeko aukera da nagusi.

Bizitzeko autonomiaren gorakada (bakarrik bizitzeko aukera), osasun-baldintzetan izan diren hobekuntzen, baldintza ekonomiko hobeen eta bizimodu independentea izateko nahiaren ondorioa da. Dena dela, egoera horrek kalteberatasun handiagoa ere ekar dezake ahulezia-egoeren eta laguntzaren premiaren aurrean. Bakarrik bizi diren pertsonen arrisku handiagoa dute gizarte-isolamendua eta gabezia ekonomikoa jasateko.

65 urteko eta gehiagoko biztanleen etxe motaren bilakaera, 1993-2020



[ETXEBIZITZA ETA INGURUNEA]

ETXEBIZITZAREN EDUKITZA-ERREGIMENA


Euskadin, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 95,2k etxebizitza bat dute jabetzan. Etxebizitzaren edukitza-erregimena oso adierazle garrantzitsua da adinekoen baliabideak eta egoera sozioekonomikoa aztertzeke garaian. Familia-aurrekontuak arintzen ditu eta, horren ondorioz, segurtasun-sentimendu handia ematen du bizitzaren etapa honetan.

Adin horietan etxebizitza bat jabetzan edukitzeak ez dirudi loturarik duenik adinarekin eta generoarekin. Izan ere, aztertutako talde guztietako gizon zein emakume gehienek dute etxebizitza jabetzan.

Etxebizitzaren jabetza, generoaren eta adinaren arabera

	Etxebizitzaren jabetza			
	Jabetzan	Beste egoera batzuk	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 95,2	% 4,4	% 0,4	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 95,6	% 4,0	% 0,4	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 94,4	% 5,2	% 0,4	0,280
65-79 urte	% 95,8	% 3,7	% 0,4	
80 urte edo gehiago	% 95,3	% 4,5	% 0,3	
Sexua				
Gizonak	% 95,6	% 3,9	% 0,5	0,264
Emakumeak	% 94,8	% 4,9	% 0,3	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 94,4	% 5,2	% 0,4	0,119
65-79 urteko gizonak	% 96,7	% 2,9	% 0,4	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 96,0	% 3,3	% 0,7	
55-64 urteko emakumeak	% 94,5	% 5,2	% 0,4	0,821
65-79 urteko emakumeak	% 95,1	% 4,4	% 0,5	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 94,8	% 5,2	% 0,0	

Etxebizitzaren jabetzaren kultura finkatuta dago gure gizartean duela hainbat hamarkada egungo adinekoek beren etxebizitza eskuratu zutenez geroztik. Ikus daitekeenez, etxebizitza jabetzan duten pertsonen ehunekoa ia ez da aldatu 2010. urteaz geroztik. 1993. urtean, gehien aukera jabetzako etxebizitza bazen ere, beste aukera batzuetara jotzen zuten pertsonen ehunekoa handiagoa zen.

Etxebizitza jabetzan duten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, 1993, 2010, 2014 eta 2020

INGURUNEAREN IRISGARRITASUNA

Inkestaren datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 4,3k irisgarritasun-arazoak dituzte etxebizitzaren barruan, eta % 13,2k bizi diren eraikinean. Emakumeek proportzio handiagoan dituzte horrelako arazoak, eta, beraz, aldagai hori generoari lotuta dagoela dirudi. Horrek zerikusia izan dezake emakumeen osasun-egoera okerragoarekin eta mendekotasun-maila handiagoekin.

Adierazle horiei beste irisgarritasun-arazo batzuk gaineratzen badizkiegu (hala nola ingurune hurbilekoak —hirigintza-oztopoak: espaloien edo kaleen egoera txarra, obrak, zikinkeria, eremu arriskutsuak eta abar— eta garraio publikoan mugitzeko arazoak), horrelako mugak dituzten biztanleen ehunekoa % 25,7 da 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean. Hau da, adin horietako lau pertsonatik batek du irisgarritasun-arazoren bat eguneroko bizitzan. Arazo horiek are handiagoak dira adinean gora egin ahala. Izan ere, laurogei urtetik gorako pertsonen % 30,5ek dituzte horrelako mugak.


Generoak ere badu eragina alderdi horretan, muga horiek dituzten emakumeen ehuneko handiagoa baita adin-tarte guztietan. Nolanahi ere, adinik aurreratuenetan berdintsuagoak dira irisgarritasun-arazoak dituzten gizonen eta emakumeen zifrak, emakumeak nagusi badira ere. Horrek zerikusia du emakumeen osasun-egoera okerragoarekin eta mendekotasun handiagoarekin.

Ingurune irisgarritasun-arazoak, generoaren eta adinaren arabera

	Irisgarritasun-arazoak			
	Bai	Ez	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 25,7	% 74,3	% 0,0	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 26,4	% 73,6	% 0,0	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 24,6	% 75,4	% 0,0	0,015
65-79 urte	% 24,4	% 75,6	% 0,0	
80 urte edo gehiago	% 30,5	% 69,5	% 0,0	
Sexua				
Gizonak	% 21,6	% 78,4	% 0,0	0,000
Emakumeak	% 29,0	% 71,0	% 0,0	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 20,9	% 79,1	% 0,0	0,052
65-79 urteko gizonak	% 19,9	% 80,1	% 0,0	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 28,2	% 71,8	% 0,0	
55-64 urteko emakumeak	% 28,1	% 71,9	% 0,0	0,397
65-79 urteko emakumeak	% 28,3	% 71,7	% 0,0	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 31,8	% 68,2	% 0,0	

Dena dela, ingurune hurbilean oraindik irisgarritasun-arazoak badaude ere, kontuan hartu behar da baldintza horiek oso bilakaera ona izan dutela EAEn. 1993-2020 aldian, irisgarritasun-arazoak murriztu egin dira aztertutako eremu guztietan. Adibidez, 2020. urtean 65 urtetik gorako pertsonen % 8,5ek baino ez dute adierazi arazoak dituztela garraio publikoa erabiltzeko garaian, eta 1993an, berriz, zifra hori hiru aldiz handiagoa izan zen (% 30,6). Azken urte hauetan irisgarritasunaren arloan izandako aldaketa handiak nabariak dira. Nolanahi ere, irisgarritasunerako eta etxebizitzak egokitzeko politikak eta programak, bizitza osorako etxebizitzaren hirigintza-plangintzen garapena eta prebentzioa (etxea egokitu edo erosteko erabakiak garaiz hartzearen bidez) funtsezkoak dira arlo horretan aurrera egiteko.

Irisgarritasun-arazoak dituzten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, 1993, 2010, 2014 eta 2020



[JARDUERA]

BILOBEN ZAINZTA

Inkesta honetan zaintzaren inguruan bildutako adierazleen artean, azpimarratu beharra dago bilobak zaintzen dituzten Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa. Emaitzak erakusten duenez, pertsona horien % 18k zaintzen dituzte bilobak, eta % 11,7k asteroko maiztasunarekin (astean 15 orduetan batez beste). Bilobak zaintzen ez dituzten pertsonen ehuneko handiaren barruan, bilobarik ez duten pertsonak ere sartzen dira.

Osasun-krisiak, nolana ere, senideak (seme-alabak, bilobak edo adinekoak) zaintzeko zereginak betetzen dituzten pertsonen % 19,6rengan izan du eragina. Ildo horretan, % 11,3k adierazi dute krisiaren ondorioz beren zaintza-jarduera maiztasun txikiagoarekin egiten dutela, eta % 8,3k, berriz, maiztasun handiagoarekin egiten dutela.

Biloben zaintzarekin jarraituz, aitona-amona zaintzaileen ehunekorik handiena 65-79 urtekoen adin-tartean agertzen da; tarte horretan, % 17,7k egiten dituzte zaintza-zeregin


horiek astean behin gutxienez. Izan ere, batez ere bizi-zikloaren garai horretan izaten dira zaintza-premia handiagoa duten adin txikiko bilobak. Hortaz, lotura nabarmena ikusten da zaintzaren eta adinaren artean, eta bilobak maiz zaintzen dituzten 80 urteko eta gehiagoko pertsonen ehuneko txikiagoak (% 4,8) hori bera islatzen du.

Generoren inferentzia ere nabaria da. Bilobak astero zaintzen dituzten emakumeak % 14,1 dira, eta gizonak, berriz, % 8,7. Datu horiek are neurri handiagoan nabarmentzen dira generoa eta adina gurutzatzean. Izan ere, bilobak zaintzen dituzten emakumeen ehunekoa handiagoa da adin-tarte guztietan, eta amona zaintzaileen ehunekoa % 21,2ra iristen da 65-79 urteko adin-tartean. Hortaz, 65-79 urteko 10 emakumetik 2k egiten dituzte astero bilobak zaintzeko zereginak.

Biloben zaintza, generoaren eta adinaren arabera

	Biloben zaintza			
	Astean behin gutxienez	Maiztasun txikiagoa edo inoiz ez	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 11,7	% 76,9	% 11,4	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 13,5	% 77,3	% 9,2	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 8,8	% 76,2	% 15,0	0,000
65-79 urte	% 17,7	% 72,9	% 9,4	
80 urte edo gehiago	% 4,8	% 86,4	% 8,8	
Sexua				
Gizonak	% 8,7	% 79,5	% 11,8	0,000
Emakumeak	% 14,1	% 74,7	% 11,1	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 5,5	% 78,0	% 16,5	0,000
65-79 urteko gizonak	% 13,7	% 77,3	% 9,1	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 3,6	% 89,7	% 6,6	
55-64 urteko emakumeak	% 11,9	% 74,6	% 13,5	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 21,2	% 69,2	% 9,7	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 5,4	% 84,6	% 10,0	

Ehuneko horrek azken 10 urteetan izan duen bilakaeran, bilobak zaintzen dituzten adinekoen kopuruaren beheranzko joera ikus daiteke. Beherakada horren arrazoen artean, honako hauek aipa daitezke: emakumeen ugalkortasun-tasa txikiagoa, familia-egituretan gertatutako aldaketak, hezkuntza-sistemen eta haurrak zaintzeko sistemen hobekuntza eta bilobak zaintzeko ezintasuna, inkesta egin zen garaian zegoen osasun-krisiaren ondorioz.

Bilobak zaintzen dituzten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020

ARIKETA FISIKOA

Euskadin, 55 urtetik gorako ia pertsona guztiek egiten dituzte ariketa fisikoko jarduerak edo kirol-jarduerak (% 91,2k). Eta hamar pertsonatik ia zazpik egunero egiten dituzte. Gainera, jarduera horiek egiten dituzten 80 urtetik gorako pertsonak % 61,5 dira. Euskadiko laurogei urtetik gorako pertsonen erdiek baino gehiagok egunero ariketa fisikoko ariketak egitea haien osasun-egoeraren, arrunt bilakatu den bizi-estilo gisa errotutako kirolaren kulturaren eta ariketak adineko pertsonentzat dituen onurak barneratu izanaren adierazle garbia da.

Adinik handieneko pertsonak ere horrelako jarduerak egiten badituzte ere, alderantzizko erlazio bat dago aldagai horren eta adinaren artean. Maiztasuna desberdina da adin-talde bakoitzean, eta ez da era mailakatuan aldatzen, baina adinean gora egin ahala jarduera horiek inoiz egiten ez dituzten pertsonen ehunekoak ere gora egiten duela ikus daiteke. Zehazki, % 8,9 dira 55-64 urteko pertsonen kasuan, eta % 24,1 80 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan. Beste datu interesgarri bat da 65-79 urtekoen taldea dela jarduera horiek maizen egiten dituenak. Horren arrazoien artean, erretiroa, osasun ona eta astialdiaz gozatzeko aukera handiagoa aipa daitezke.

Halaber, genero-desberdintasunak agertzen dira, gizonak emakumeek baino proportzio handiagoan eta maiztasun handiagoarekin egiten baitute ariketa fisikoa. Hala ere, aldeak ez dira oso handiak (% 5 ingurukoak). Kirolaren kultura genero-rol tradizionaleraino lotuta dago. Emakumeek jarduera fisikoa eta kirolean duten parte-hartzea gizonena baino txikiagoa izan da, eta da oraindik ere. Hori ez da kasualitatez gertatzen, eta ez da kasu bakana, emakumearen parte-hartzea txikiagoa da publikotzat hartutako eremuetan, hala nola lan-munduan, politikan, kulturean eta abar. Hala ere, azken urteetan emakumeak eremu horietara ere iristen ari direla ikus daiteke. Adineko emakumeek gero eta agerpen handiagoa dute aisiari eta astialdiari lotutako jardueretan, eta, haien artean, ariketa fisikoa. Adibidez, 2014an egindako inkestaren datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko emakumeen % 54,8k egiten zuten egunero ariketa fisikoa edo kirola, eta zifra hori egungo % 64,9ra igo da. Gizonen kasuan, berriz, ehunekoak % 68,2ra iritsi zen 2014an, eta berdintsu jarraitu du (% 69,7 gaur egun).

Generoa eta adina gurutzatzean ikus daitekeenez, 55-64 urteko emakumeek gizonak baino proportzio handiagoan egiten dituzte egunero jarduera horiek. Beraz, baliteke etorkizunean emakumeak nagusi izatea jarduera mota horietan.


Ariketa fisikoa edo kirola egiteko maiztasuna, generoaren eta adinaren arabera.

	"Kirola edo ariketa fisikoa" egiteko maiztasuna						
	Egunero edo ia egunero	Astean behin gutxienez	1-3 aldiz hilean	Maiztasun txikiagoarekin	Inoiz ez	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 67,1	% 12,9	% 1,0	% 5,2	% 13,6	% 0,3	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 68,9	% 9,1	% 0,5	% 4,5	% 16,5	% 0,4	.
Adin-tarteak							
55-64 urte	% 64,2	% 19,0	% 1,6	% 6,3	% 8,9	% 0,0	0,000
65-79 urte	% 72,4	% 9,8	% 0,8	% 4,0	% 12,8	% 0,1	
80 urte edo gehiago	% 61,5	% 7,7	% 0,0	% 5,6	% 24,1	% 1,0	
Sexua							
Gizonak	% 69,7	% 13,0	% 1,2	% 5,3	% 10,8	% 0,0	0,003
Emakumeak	% 64,9	% 12,9	% 0,8	% 5,1	% 15,8	% 0,4	
Sexua eta adina							
55-64 urteko gizonak	% 62,7	% 19,5	% 1,9	% 7,9	% 7,9	% 0,0	0,000
65-79 urteko gizonak	% 76,7	% 10,1	% 0,9	% 3,0	% 9,2	% 0,1	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 69,6	% 3,1	% 0,0	% 4,7	% 22,6	% 0,0	
55-64 urteko emakumeak	% 65,6	% 18,4	% 1,4	% 4,9	% 9,7	% 0,0	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 68,9	% 9,5	% 0,7	% 4,7	% 15,9	% 0,2	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 57,1	% 10,3	% 0,0	% 6,1	% 25,0	% 1,5	

Kirola edo ariketa fisikoa astero egiten duten adineko pertsonen ehunekoaren bilakaeran, goranzko joera bat ikus daiteke, azken hamarkadan % 10eko igoera izan baitu. Jarduera horiek adineko gehienengan zabaldua daude, eta joera ia pertsona guztiek kirola edo ariketa fisikoa astero (edo egunero) egitera iristekoa dela dirudi.

Datu horiek oso positiboak dira, kontuan hartuta Covid-19aren krisiaren ondorioz 2020. urteak bizi-estiloen eta eguneroko ohituren aldaketa izan duela ezaugarri bereizgarri. Hori kontuan hartuta, adineko pertsonen % 28,3k inkesta egin den garaian adierazi dutenez, aurreko urtean baino ariketa fisikoa gutxiago egin dute. Azpimarratu beharra dago, halaber, % 3,0k handitu egin dutela jarduera horiek egiteko maiztasuna krisiaren ondorioz..

Kirola edo ariketa fisikoa astero egiten duten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020



BOLUNTARIOTZA

Inkestaren datuen arabera, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 16,7k egiten dute boluntariotza-jardueraren bat. % 8,0k astero egiten dute, eta % 8,7k maiztasun txikiagoarekin. Jarduera horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: gizarte-zerbitzuen eta komunitateari zuzendutakoen erakundeetan egindako boluntariotza-lana (adibidez, adinekoei, gazteei, desgaituei eta premia bereziak dituzten beste kolektibo batzuei laguntzen dieten erakundeak), hezkuntza-, kultura-, kirol- edo lanbide-elkartek, gizarte-mugimenduak (hala nola ingurumenaren eta giza eskubideen aldekoak), ongintza-

elkartek (funtsak biltzea, kanpainak), gastronomia-, koru- eta/edo literatura-elkartek, eta beste boluntarioritza-erakunde batzuk.

Lortutako emaitzen arabera, adinak eragina du jarduera horietan. Izan ere, adinak gora egin ahala, pertsona gutxiagok eta maiztasun txikiagoarekin egiten dituzte. Nolanahi ere, jarduera horiek proportziorik handienean eta maiztasunik handienarekin egiten dituen taldea 65-79 urtekoa da. Adin horietako pertsonen inplikazio handiago horren arrazoiak artean, arestian aipatutakoak ditugu: lan-merkatutik kanpo egotea (erretirodunak), osasun-egoera ona izatea eta astialdiaz gozatzeko aukera handiagoa izatea.


Generoa, ordea, ez dago lotuta boluntarioritza-lan horietan parte hartzearekin. Gizonak eta emakumeak neurri berean inplikatzeko dira jarduera horietan. Dena dela, adina eta generoa gurutzatzean ikus daitekeenez, 55-64 urteko gizonak dira lan horietan gehien inplikatzeko direnak (kasuen % 20,4).

Boluntarioritza-lana egiteko maiztasuna, generoaren eta adinaren arabera

	Boluntarioritza			
	Astero	Maiztasun txikiagoarekin	Inoiz ez du egin + Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 8,0	% 8,7	% 83,3	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 7,5	% 8,0	% 84,5	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 8,8	% 9,9	% 81,4	0,002
65-79 urte	% 9,0	% 8,4	% 82,6	
80 urte edo gehiago	% 4,4	% 7,3	% 88,3	
Sexua				
Gizonak	% 8,0	% 9,5	% 82,5	0,447
Emakumeak	% 8,0	% 8,2	% 83,8	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 9,4	% 10,9	% 79,6	0,013
65-79 urteko gizonak	% 8,5	% 8,8	% 82,7	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 2,7	% 7,4	% 89,8	
55-64 urteko emakumeak	% 8,1	% 8,9	% 83,0	0,171
65-79 urteko emakumeak	% 9,5	% 8,0	% 82,5	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 5,2	% 7,3	% 87,5	

2010etik 2014ra bitarte portzentajezko 5 puntuko igoera gertatu zen, baina azken sei urteetan (2014tik 2020ra bitarte) berdintsu jarraitu du zifrak. Zifrek gora ez egitearen arrazoietakoa bat boluntariotzan parte hartzeko aukerak mugatu dituen 2020ko krisi sakona izan daiteke. Inkestan jasotzen denez, adineko pertsonen % 9,3k jarduera horiek egiteko maiztasuna murriztu zuten arrazoi horren ondorioz.

Boluntariotza-lana egiten duten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020



INTERNETEN ERABILERA

Inkestaren datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 64,2k erabiltzen dute internet astero. Pertsonen erdiek baino gehiagok (% 57,0k) egunero erabiltzen dute, eta alde handiak agertzen dira adinaren eta generoaren arabera. Adin aurreratuetako pertsonak eta emakumeek proportzio txikiagoan eta maiztasun txikiagoarekin erabiltzen dute internet. Zifretan dauden aldeak handi samarrak dira. Zehazki, 55-64 urteko 10 pertsonatik ia 9k erabiltzen dute internet astero, eta 80 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan, berriz, 10etik 2k baino ez. Belaunaldien arteko arrail digitala nabaria da. Generoari dagokionez, emakumeen zifrak gizonenak baino txikiagoak dira. Izan ere, emakumeen % 58,5k eta gizonen % 71,2k erabiltzen dute astero.


Generoa eta adina gurutzatzean ondoriozta daitekeenez, belaunaldi berrietan ez dago genero-desberdintasunik; bai, ordea, adinean gora egin ahala. Beraz, esan daiteke etorkizunean generoaren araberrako desberdintasunak askoz txikiagoak izango direla eta agian desagertu egingo direla.

Internet erabiltzeko maiztasuna, generoaren eta adinaren arabera.

	Interneten erabilera azken 3 hilabeteetan			
	Astero	Maiztasun txikiagoarekin	Inoiz ez	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 64,2	% 13,8	% 22,0	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 49,3	% 18,6	% 32,0	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 87,8	% 6,2	% 6,1	0,000
65-79 urte	% 63,4	% 15,1	% 21,5	
80 urte edo gehiago	% 20,0	% 26,1	% 53,9	
Sexua				
Gizonak	% 71,2	% 11,6	% 17,1	0,000
Emakumeak	% 58,5	% 15,6	% 25,9	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 87,4	% 7,1	% 5,5	0,000
65-79 urteko gizonak	% 71,6	% 11,9	% 16,5	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 27,0	% 23,1	% 49,9	
55-64 urteko emakumeak	% 88,1	% 5,3	% 6,6	0,000
65-79 urteko emakumeak	% 56,5	% 17,7	% 25,7	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 16,3	% 27,7	% 56,0	

Azken 10 urteetako bilakaeran, interneten gero eta erabilera zabalduago baterako joera ikus daiteke. Izan ere, internet (edo ordenagailua) erabiltzen zuten adinekoak % 5,5 ziren 2010ean, % 28,9 2014an eta % 49,3 2020an. Gazteenen taldean lortutako emaitzak kontuan hartuta, adinekoen arteko arrail digitala desagertzeko joera bat dagoela ikus daiteke, interneten erabileran bederen. Zifren igoera horren arrazoiaren artean, honako hauek azpimarra daitezke: internet duten telefono mugikorrek (smartphoneak) zabaldu izana, komunikazio-aplikazioen (hala nola whatsapp-aren) ugalketa, haien erabilera erraza eta haien diseinu ulergarria. 2020. urtean, gainera, alarma-egoerak, etxean egoteak eta mugimenduen murrizketak teknologia horien erabilera bultzatu dute herritar guztiengan, baina agian eragin zuzenagoa izan dute aplikazio eta utilitate batzuekin atzeratuta zebiltzan adineko pertsonengan.

Internet erabiltzen duten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoaren bilakaera, 2010², 2014 eta 2020



2 2010eko inkestan, interneten eta ordenagailuaren erabilera hartu zen kontuan.

[ONGIZATE EMOZIONALA ETA BAKARTASUN-SENTIMENDUA]**ONGIZATE SUBJEKTIBOA**

Ongizate subjektiboa pertsonen ongizate-esperientziaren maila beren bizitzaren ebaluazio subjektiboen arabera deskribatzeko erabiltzen den termino orokorra da. Azterlan honetan, Osasunaren Mundu Erakundeak diseinatutako neurri bat (WHO-5) erabili da ongizate subjektiboa neurtzeko. Neurri hori Otik 100era interpreta daiteke; 0 ongizate-mailarik txikiena da, eta 100, berriz, ongizate-mailarik handiena.


Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen emaitzek erakusten dutenez, herritarren batez besteko ongizate subjektiboa 68,5 puntura iristen da (ia 70, 100eko eskalan). Zifra horrek adierazten du adin horietako pertsonen ongizate-maila handia dela. Hala ere, alde handiak ikus daitezke generoari eta, neurri txikiagoan, adinari erreparatuta. Adibidez, 65-79 urteko pertsonak dute ongizaterik handiena, eta laurogei urtekoek eta gehiagokoek, berriz, txikiena. Eta gizonek emakumeek baino ongizate handiagoa dute. Hori guztia adintalde guztietan gertatzen da; emakumeek gizonek baino emaitza okerragoak dituzte beti. Generoari zein adinari lotutako emaitza horiek hertsiki lotuta daude osasun-egoera subjektiboarekin, besteak beste. Adin aurreratuetako emakumeak dira osasun-egoerarik txarrenea dutenak, ongizatearekin gertatzen den bezala.

Ongizate subjektiboa, generoaren eta adinaren arabera. 0-100 eskala

	Ongizatea (Otik 100era)		
	Batezbestekoa	Desbideratze tipikoa	p
55 urte baino gehiago, guztira	68,50	20,17	.
65 urte baino gehiago, guztira	68,72	20,97	.
Adin-tarteak			
55-64 urte	68,15	18,82	0,023
65-79 urte	70,02	19,65	
80 urte edo gehiago	66,01	23,26	
Sexua			
Gizonak	70,64	18,98	0,000
Emakumeak	66,77	20,92	
Sexua eta adina			
55-64 urteko gizonak	70,26	17,51	0,196
65-79 urteko gizonak	71,94	18,81	
80 urte eta gehiagoko gizonak	68,07	22,65	
55-64 urteko emakumeak	66,16	19,78	0,170
65-79 urteko emakumeak	68,40	20,21	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	64,89	23,55	

2010eko inkestan ongizatearen aldagaia sartu ez bazen ere, interesgarria da Euskadiko adineko pertsonen zifrek 2014tik 2020ra bitarte izan duten bilakaerari erreparatzea. 2014. urtean, ongizatearen batezbestekoa 62,1 zen, eta sei urte geroago, berriz, zifra horrek sei puntuko igoera izan du, eta 68,7ra iritsi da 2020an. Biztanle talde horren ongizateak izan duen gorakada aurrerapen handia da, kontuan hartuta 2020an jasandako krisiak eragina izan duela, zalantzarik gabe, pertsonen ongizatean.

Adineko pertsonen ongizate subjektiboaren bilakaera, 2014 eta 2020



GOGOBEETASUNA

Azterlan honetan, egungo egoerarekiko eta bizitzarekiko —oro har— gogobetetasunari buruzko galdera bat txertatu da gogobetetasunaren adierazle gisa. Galdera hori 0tik 10erako eskala batean erantzun behar da; 0 gogobetetasunik eza da, eta 10, berriz, erabateko gogobetetasuna. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen gogobetetasunaren batezbestekoa 7,82 izan da. Eraitza horrek gogobetetasuna oro har handia dela adierazten du.

Adin-tarteen arabera ikus daitekeenez, adinean gora egin ahala bizitzarekiko gogobetetasunaren batezbestekoa igo egiten da (7,73 55-64 urteko pertsonen kasuan, eta 7,95 laurogei urtetik gorako pertsonen kasuan). Eraitza hori bat dator bizitzarekiko

gogobetetasuna adinean gora egin ahala handiagoa dela erakutsi duten beste ikerketa batzuekin. Eta generoak eragin txikiagoa duela badirudi ere, emakumeek gizonak baino puntuazio hobekak lortu dituzte adierazle horretan.


Generoa eta adina gurutzatzean nabarmentzen da batez ere emakumeen kasuan ikusten dela argi eta garbi bizitzarekiko gogobetetasuna handiagoa dela adinean gora egin ahala, eta emakumeek adin-tarte guztietan dutela gizonak baino gogobetetasun handiagoa, 65-79 urtekoen taldean izan ezik (talde horretan, zifra berdina izan da).

**Bizitzarekiko —oro har— eta egungo egoerarekiko gogobetetasuna, generoaren eta adinaren arabera
0-10 eskala**

	Egungo egoerarekiko gogobetetasuna. 0-10 eskala		
	Batez- bestekoa	Desbideratze tipikoa	p
55 urte baino gehiago, guztira	7,82	1,50	.
65 urte baino gehiago, guztira	7,88	1,57	.
Adin-tarteak			
55-64 urte	7,73	1,39	0,000
65-79 urte	7,85	1,55	
80 urte edo gehiago	7,95	1,61	
Sexua			
Gizonak	7,76	1,41	0,031
Emakumeak	7,87	1,57	
Sexua eta adina			
55-64 urteko gizonak	7,66	1,49	0,132
65-79 urteko gizonak	7,85	1,31	
80 urte eta gehiagoko gizonak	7,80	1,47	
55-64 urteko emakumeak	7,79	1,30	0,006
65-79 urteko emakumeak	7,85	1,73	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	8,03	1,68	

Adineko pertsonen bizitzarekin —oro har— duten gogobetetasun-mailak azken urteetan izan duen bilakaeran, 2010etik 2020ra bitarte puntu 1etik gorako igoera izan dela ikus daiteke. 2010ean, adineko pertsonen gogobetetasunaren batezbestekoa 6,8 puntukoa zen, eta 2020an, berriz, 7,9koa. Igoera horrek adineko pertsonen bizitzarekiko gogobetetasun-maila handiago baterako goranzko joera adierazten du. Emaitza horiek oso positiboak dira, kontuan hartuta adineko pertsonen % 19,2ren bizitzarekiko gogobetetasunak okerrera egin duela 2020an jasandako krisi-egoeraren ondorioz.

65 urteko eta gehiagoko pertsonen bizitzarekiko —oro har— eta egungo egoerarekiko gogobetetasunaren bilakaera, 2010, 2014 eta 2020



BAKARTASUN-SENTIMENDUA

Inkestaren datuen arabera, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 7,2k bakarrik sentitzen direla adierazi dute (beti, ia beti edo sarritan), eta, beraz, herritar gehien-gehienek (% 90,4k) ez dute maiz izaten horrelako sentimendurik.

Jasandako Covid-19aren krisiak (nagusiki alarma-egoerako eta konfinamenduko hilabeteekin lotuak) eragina izan du pertsona horien bizitzan. Ildo horretan, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 12,7k adierazi dute bakartasun-sentimendu horiek maizago izan dituztela egoera hori dela eta.

Nolanahi ere, bakartasun-sentimendua generoari eta adinari lotuta dagoela dirudi. Izan ere, adinean gora egin ahala, handiagoa da bakarrik maiz sentitzen direla dioten pertsonen proportzioa (55-64 urteko pertsonen % 5,8 eta 80 urteko eta gehiagoko pertsonen % 11,5). Bestalde, bakarrik sentitzen direla dioten emakumeen proportzioa handiagoa da (emakumeen % 8,5 eta gizonen % 5,7). Sexua eta adina gurutzatzean ikus daitekeenez, emakumeek beti dituzte proportzio handiagoan bakartasun-sentimenduak, baina adin aurreratuetan genero-aldeak murriztu egiten direla dirudi. Laurogei urteko eta gehiagoko emakumeek eta gizonak ia proportzio berean dituzte bakartasun-sentimenduak (gizonen % 10,9k eta emakumeen % 11,9k). Adin aurreratuetan, bakartasun-sentimenduaren maiztasuna antzekoa da gizonen eta emakumeen kasuan, eta genero-desberdintasunak desagertu egiten dira.

Beste datu garrantzitsu bat da bakarrik bizi diren pertsonen beste pertsona batzuekin bizi direnek baino proportzio handiagoan adierazi dutela bakartasun-sentimenduak dituztela. Zehazki, bakarrik bizi diren pertsonen % 14,1ek eta beste batzuekin bizi diren pertsonen % 4,8k adierazi dute bakartasun-sentimenduak dituztela. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago bakarrik bizi diren pertsonen proportzio handiagoan adierazi dutela ez dutela bakartasun-sentimendurik maiz (kasuen % 84,8k). Izan ere, bakartasuna sentitzea eta bakarrik bizitzea ez da gauza bera, ikerketak bi alderdiak lotuta daudela agerian utzi badu ere.

Osasun-egoera bakartasun-sentimenduarekin lotuta dagoen beste adierazle bat da. Bakarrik sentitzen diren pertsoen artean, osasun txarra dutela adierazi dutenen ehunekoak % 20,7 da, eta osasun-egoera onean dauden pertsonena, berriz, % 4,6. Aldagai hori generoari eta adinari lotuta dago. Horrez gain, hezkuntza-maila ere bakartasun publiko izenekoarekin lotuta dagoela dirudi.

Bakartasun publikoa, generoaren eta adinaren arabera

	Zer maiztasunarekin sentitzen zara bakarrik?			
	Beti edo ia beti + sarritan	Gutxitan + Inoiz ez edo ia inoiz ez	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 7,2	% 91,8	% 1,0	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 8,1	% 90,4	% 1,4	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 5,8	% 93,9	% 0,4	0,000
65-79 urte	% 6,5	% 92,8	% 0,7	
80 urte edo gehiago	% 11,5	% 85,4	% 3,0	
Sexua				
Gizonak	% 5,7	% 93,1	% 1,2	0,006
Emakumeak	% 8,5	% 90,7	% 0,9	
Sexua eta adina				

55-64 urteko gizonak	% 4,8	% 94,9	% 0,2	
65-79 urteko gizonak	% 4,6	% 94,6	% 0,9	0,001
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 10,9	% 84,2	% 4,9	
55-64 urteko emakumeak	% 6,7	% 92,9	% 0,5	
65-79 urteko emakumeak	% 8,1	% 91,4	% 0,5	0,020
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 11,9	% 86,1	% 2,0	

Pertsonen zuzenean bakarrik sentitzen diren ala ez galdetzen zaienean, baliteke erantzunak okerrak izatea bakartasun aitortua edo publikoa adierazteko garaian. Akats horiek egungo gizartean bakartasuna estigmatizatuta dagoelako eta egoera hori aitortu nahi izaten ez delako ager daitezke. Horregatik, pertsona bakarrik sentitzen den zuzenean galdetu gabe bakartasun-sentimendua neurtzeko eskala batzuk garatu dituzte zenbait ikertzailek. Azterlan honetan, eskala horietako bat erabili dugu (De Jong Gierveld-ena). Eskala horiei bakartasun pribatu deitzen zaie, bakartasuna zehazten ez duten baina galdera batzuen bidez jasotzen duten item batzuen baturaren emaitza baitira. Galderak honako hauek izan daitezke: beste pertsona batzuen falta sentitzen al duzu?, erabateko konfiantzako jende asko al duzu?, benetako lagun baten falta sentitzen al duzu? Eskalak horrelako 11 galdera ditu, eta emaitzaren arabera, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 24,7 sentitzen dira bakarrik. Ikus daitekeenez, datu hori bakartasun aitortuarena (sentimendu horren maiztasunaz zuzenean galdetuta) baino handiagoa da.

Bakartasun-eskala horren emaitzen arabera, adina ere lotuta dagoen aldagai bat da. Pertsonen adinak gora egin ahala, handiagoa da bakarrik sentitzen diren pertsonen ehunekoa, eta 80 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik ia 3 sentitzen dira bakarrik.

Hala ere, eskala horren emaitzatik ezin da ondorioztatu genero-desberdintasunak daudenik bakartasun pribatuaren sentimenduari dagokionez. Sentimendu horiek dituzten gizonen eta emakumeen ehunekoak antzekoak dira. Dena dela, sexua eta adina gurutzatzean ikus daitekeenez, emakumeen kasuan desagertu egiten da adinaren eta sentimendu horren arteko lotura, eta emakumeen bakartasun-sentimendua jarraitua dela esan daiteke. Gizonen kasuan, berriz, sentimendu hori areagotu egiten da adinean gora egin ahala. Zehazki, laurogei urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan, gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 33,8 eta % 26,8, hurrenez hurren). Horrek adierazten du gizonek ere badutela sentimendu hori, baina emakumeek baino neurri txikiagoan aitortzen dutela.

Eskala horretan, halaber, bakartasun pribatua eta bakarrik bizitzea lotuta daudela ikus daiteke, bakartasun publiko edo aitortuaren kasuan bezala. Bakarrik bizi diren pertsonen % 30,5 eta beste pertsona batzuekin bizi diren pertsonen % 22,6 sentitzen dira bakarrik.

Era berean, osasun-egoera eta hezkuntza-maila bakartasun pribatuarekin lotuta daude, bakartasun publikoarekin gertatzen den bezala. Osasun-egoera txarrean dauden pertsonen eta heziketa-maila txikiak dituzten pertsonen proportzio handiagoan dituzte bakartasun-sentimenduak.

Bakartasun pribatua, generoaren eta adinaren arabera

	Bakartasuna			
	Bakartasunik ez	Bakartasuna	Ed/Ee	p
55 urte baino gehiago, guztira	% 75,0	% 24,7	% 0,3	.
65 urte baino gehiago, guztira	% 73,0	% 26,6	% 0,4	.
Adin-tarteak				
55-64 urte	% 78,3	% 21,7	% 0,0	0,002
65-79 urte	% 74,5	% 25,4	% 0,1	
80 urte edo gehiago	% 69,7	% 29,3	% 1,0	
Sexua				
Gizonak	% 75,1	% 24,6	% 0,3	0,965
Emakumeak	% 74,9	% 24,8	% 0,3	
Sexua eta adina				
55-64 urteko gizonak	% 78,5	% 21,5	% 0,0	0,003
65-79 urteko gizonak	% 75,3	% 24,4	% 0,3	
80 urte eta gehiagoko gizonak	% 65,2	% 33,8	% 1,0	
55-64 urteko emakumeak	% 78,0	% 21,9	% 0,1	0,139
65-79 urteko emakumeak	% 73,8	% 26,2	% 0,0	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	% 72,2	% 26,8	% 1,0	

[BALIOAK]

POLITIKAREKIKO INTERESA

Gizartea zahartzen den heinean, adineko pertsonen hautesle-erroldean duten ehunekoa handiagoa da. Ildo horretan, pertsona horiek politikan duten interesak oso balio handia du. 2020ko inkestaren datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen politikan duten interesa 4,95 puntukoa da 0tik 10erako eskala batean (0 interesik eza eta 10 interesik handiena izanik). Eraitza horren arabera, beraz, adineko pertsonak bitarteko tartetean kokatuta daude ("ez asko ez gutxi" batean), eta gaiarekiko nolabaiteko axolagabekeria adierazten du horrek.

Aldagai hori generoarekin eta adinarekin lotuta dagoela ikus daiteke. Ildo horretan, adinean gora egin ahala emakumeek interes txikiagoa agertzen dute politikarekin. 55-64 urteko pertsonen politikan duten interesa 5,37 puntukoa da batez beste, eta 80 urteko eta gehiagoko pertsonen dutena, berriz, 3,85 puntukoa. Gizonena 5,54koa da, eta emakumeena, berriz, 4,46koa.


Generoa eta adina gurutzatzean, garbi ikusten da bi generoetan politikarekiko interesak behera egiten duela adinean gora egin ahala, eta emakumeek interes txikiagoa agertzen dutela adin-talde guztietan.

Politikarekiko interesa, generoaren eta adinaren arabera. 0-10 eskala

	Politikarekiko interesa		
	Batezbestekoa	Desbideratze tipikoa	p
55 urte baino gehiago, guztira	4,95	3,42	.
65 urte baino gehiago, guztira	4,67	3,52	.
Adin-tarteak			
55-64 urte	5,37	3,22	0,000
65-79 urte	5,04	3,45	
80 urte edo gehiago	3,85	3,55	
Sexua			
Gizonak	5,54	3,31	0,000
Emakumeak	4,46	3,44	
Sexua eta adina			
55-64 urteko gizonak	5,65	3,27	0,000
65-79 urteko gizonak	5,76	3,22	
80 urte eta gehiagoko gizonak	4,61	3,56	
55-64 urteko emakumeak	5,10	3,16	0,000
65-79 urteko emakumeak	4,43	3,52	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	3,44	3,47	

Hala ere, politikarekiko interesak azken hamar urteetan izan duen bilakaeran, gorakada handia izan dela ikus daiteke. Adineko pertsonen batez besteko puntuazioa 3,27 zen 2010ean, eta 4,67 2020an, Otik 10erako eskala batean. Beraz, badirudi pertsona horiek politikarekin duten interesak goranzko joera bat duela.

65 urteko eta gehiagoko pertsonen politikarekiko interesaren bilakaera, 2010 eta 2020



ERLIJIOA

Pertsona fededunak diren galdetzean lortutako emaitzen arabera, Otik 10erako eskala batean (0 batere fededuna ez, eta 10 erabat fededuna izanik), 55 urteko eta gehiagoko pertsonen batezbestekoa 4,93 da. Beraz, bitarteko tartean kokatuta daude, gai politikoekiko interesarekin gertatzen den bezala.

Kasu honetan ere, erlijiozaletasun-maila zuzenean lotuta dago generoarekin eta adinarekin, baina alderantzizko zentzuan. Izan ere, emakumeen kasuan eta adinean gora egin ahala, erlijiozaletasun-maila handiagoa da. Zehazki, laurogei urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan, 6,61 da batez beste, eta emakumeen kasuan, 5,50.

Generoa eta adina gurutzatzean, garbi ikusten da emakumeek, adin-tarte guztietan, gizonen baino neurri handiagoan hartzen dutela beren burua fededuntzat, eta erlijiozaletasun horrek gora egiten duela adinean gora egin ahala, gizonen zein emakumeen kasuan. Emaitzarik azpimarragarriena emakume gazteenen eta zaharrenen artean dagoen aldea

da. Izan ere, 55-64 urteko emakumeen batez besteko erlijiozaletasun-maila 4,24koa da, eta 80 urteko eta gehiagoko emakumeena, berriz, 7,27koa (hau da, 3 puntutik gorako aldea dago). Gizonen kasuan, adin-tarteen arteko aldea ez da 2 puntura iristen.

Ikusten denez, lotura garbia dago erlijiozaletasun-mailaren eta adinaren artean. Izan ere, adinean gora egin ahala handiagoa da beren burua fededuntzat hartzen duten pertsonen batezbestekoa. Dena dela, batezbestekoen mailakako igoera horren arrazoia bizitzaren historiarekin eta belaunaldiarekin zerikusia duen alderdiren bat izan daiteke. Adinik handieneko pertsonen eta txikieneko artean dagoen belaunaldi-desberdintasuna balioetan gertatutako eraldaketa baten emaitza izan daiteke, baina belaunaldi-desberdintasun hori ez da herrialde bateko erlijiozaletasun-maila handiagoaren edo txikiagoaren arrazoi bakarra. Garai jakin batean izan diren gertaerak hartu behar dira kontuan.


Erlijioa, gainera, generoarekin lotuta egon izan den gaia da. Erlijio-ospakizunetara joatea, adibidez, nagusiki emakumeek egiten duten jarduera da.

Erljiozaletasun-maila, generoaren eta adinaren arabera. 0-10 eskala

	Pertsona fededuna		
	Batezbestekoa	Desbideratze tipikoa	p
55 urte baino gehiago, guztira	4,93	3,27	.
65 urte baino gehiago, guztira	5,62	3,18	.
Adin-tarteak			
55-64 urte	3,86	3,11	0,000
65-79 urte	5,16	3,14	
80 urte edo gehiago	6,61	3,05	
Sexua			
Gizonak	4,22	3,21	0,000
Emakumeak	5,50	3,20	
Sexua eta adina			
55-64 urteko gizonak	3,45	3,08	0,000
65-79 urteko gizonak	4,60	3,16	
80 urte eta gehiagoko gizonak	5,35	3,22	
55-64 urteko emakumeak	4,24	3,09	0,000
65-79 urteko emakumeak	5,65	3,05	
80 urte eta gehiagoko emakumeak	7,27	2,73	

Erlijiozaletasun-mailaren bilakaerari buruzko datuen arabera, beheranzko joera bat dagoela dirudi, baina zifretan agertzen den aldea ez da joera orokortzat hartzeko bezain esanguratsua.

65 urteko eta gehiagoko pertsonen erlijiozaletasun-mailaren bilakaera, 2010 eta 2020



[FUNTSEZKO MEZUAK]

Euskadin, zahartzea emakumeen taldeari lotuta dago nagusiki; adinean gora egin ahala, emakumeen nagusitasuna handiagoa da, emakume alargunen proportzioa bezala. Gazteagoen eta gizonen kasuan, berriz, egoerarik ohikoena bikotekidearekin bizitzea da.

Adineko pertsona gehienek bigarren mailako ikasketak dituzte gutxienez, eta gizonen hezkuntza-maila eta emakumeena orekatzeko joera progresibo bat detektatu da, gazteenen taldeetan islatzen dena.

Pertsona gehienak erretiratuta daude edo pentsio bat kobratzen ari dira, eta bitarteko ekonomikoak dituzte beren premiei erantzuteko. Egoera ekonomikoa okerragoa da emakumeen eta zaharreneen kasuan.

Pertsona askok osasun-egoera ona dutela diote, eta pertzepzio horrek behera egiten du adinean gora egin ahala. Era berean, adinik handieneko pertsonak proportzio handiagoan behar dute laguntza eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.

Aukerarik zabalduea bizilekuan bizitzea da, baita mendekotasun-egoeran ere, aukera horrek aurreko inkestekin alderatuta zertxobait behera egin badu ere. Pertsonak zahartzen diren heinean, murriztu egiten da norberarekin bizi diren pertsonen kopurua. Ildo horretan, adinik handieneko pertsonen eta emakumeen egoerarik ohikoena bakarrik bizitzea da.

Egoerarik ohikoena etxebizitza bat jabetzan edukitzea da, eta, zenbaitetan, irisgarritasun-arazoak detektatu dira etxebizitzaren barruan zein hurbileko ingurunean. Hala ere, irisgarritasun-baldintzak hobetu egin dira aurreko inkestekin alderatuta.

Pertsonen ia % 20k (emakumeek bereziki) bilobak zaintzen dituzte astero. Antzeko ehuneko batek (gizonek zein emakumeek) boluntariotzan dihardu, eta ehuneko hori egonkorra da aurreko inkestekin alderatuta. Bestalde, adineko pertsona gehienek ariketa fisikoa egiten dute, eta emakumeen ehunekoak bereziki gora egin du aurreko inkestean emaitzekin alderatuta.

Arrail digitala desagertzen ari da, eta gero eta adineko pertsona gehiagok erabiltzen dute internet. Nolanahi ere, adinik handieneko emakumeak dira proportziorik txikienean erabiltzen dutenak.

Pertsonak, oro har, ongi sentitzen direla eta beren bizitzarekin pozik daudela adierazi dute, aurreko inkestetan baino maila handiagoan gainera. Bestalde, pertsona kopuru txiki batek bakartasun-sentimenduak jasaten ditu, baina kopuruak gora egiten du osasun-krisiagatik eta adinik handieneko pertsonen kasuan.

Gai politikoekiko interesak gora egin du aurreko inkestekin alderatuta, eta erabilitako eskalaren erdialdean kokatu da, emakumeen eta adinik handienekoen kasuan txikiagoa izan bada ere. Emaitza hori erlijiozaletasun-mailak eman duenaren antzekoa da, kasu horretan zertxobait behera egin badu ere.